

Gender A B C

Lehen Hezkuntzarako
heziketa-programa



Generoaren arau sozialak eta estereotipoak

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Lehen Hezkuntzarako
heziketa-programa

Generoaren arau sozialak eta estereotipoak

Heziketa-modulu hau **AIDOS** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	3
3. Gako-hitzak	3
4. Ikasketa-xedeak	3
5. Jardueren zerrenda	4
II - atala: Jarduerak	5
1. jarduera: <i>Lanak</i>	5
• Testuingurua	5
• Gidoia	5
• Jarraibideak	6
2. jarduera: <i>Edertasun-eredua</i>	7
• Testuingurua	7
• Gidoia	7
• Jarraibideak	8
3. jarduera: <i>Bestearen oinetakoak</i>	9
• Testuingurua	9
• Gidoia	9
• Jarraibideak	10
Saioaren egitura	11
Moduluen zerrenda	13

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Modulu honen helburua da genero-desberdintasunak identifikatzea eta aztertzea, bereziki lanarekin, familia-rolekin eta edertasunarekin lotutako generoaren arau sozialak eta estereotipoak. Xedea da ezberdintasun horiek ezagutzea eta kultura-faktoreekin duten loturaz jabetzea, denboran zehar alda baitaitezke; azken finean, erakutsi nahi da estereotipo arruntak eta aurreiritziak nolakoak diren eta zenbateraino oztopa dezaketen asetze pertsonala eta norberaren helburuak eta nahiak lortzea.

2. Gai nagusiak

- Genero-desberdintasunak eta rolak
- Genero-estereotipoak eta arau sozialak
- Sexismoa hizkuntzan
- Aurreiritzia ikustea eta gainditzea
- Genero-berdintasuna

3. Gako-hitzak

Generoa • Genero-rolak • Genero-berdintasuna
Genero-estereotipoak • Sexismoa hizkuntzan

4. Ikasketa-xedeak

- Genero-desberdintasunen eta estereotipoen gainean hausnarketa sustatzea
- Hizkuntzaren sexismoa identifikatzea
- Norbere kontzientzia eta ezagutza handitzea familia eta laneko genero-estereotipoei dagokienez
- Balioa eranstea generorik eta aurreiritzirik gabekoei irudi positiboak
- Pentsamendu kritikoa eta norberaren adierazpen askea sustatzea

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Helburu-adina	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ¹
1	Lanak	6-8 urte	45 minutu	• Orriak • Koloreak	☆☆☆
2	Edertasun-eredua	9-12 urte	45 minutu	• Orriak • Koloreak • Aldizkariak • Horma-irudia	☆☆☆
3	Bestearen oinetakoak	9-12 urte	45 minutu	• Txartel batzuk gida-galderekin	☆☆☆

¹ Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, "oso gomendagarria" den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala

JARDUERAK

I. jarduera Lanak ☆☆☆



Jardueraren iraupena guztira
45 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 20
Segimendua: 20



Materialak
☐ Orriak
☐ Koloreak



Helburu-adina
6-8 urte

→ TESTUINGURUA

Jardueraren helburua **da haurraren hausnarketa sustatzea genero-estereotipoen gainean**, eta arreta berezia jartzea lanbideei dagokienez. Hau da, hausnarketa egitea emakumeek aukeratzen dituzten eta gizonek aukeratzen dituzten lanbideen artean; eta norbere genero-identitatearen, desioen eta laneko helburuen gaineko hausnarketa bultzatzea.

→ GIDOIA



A Eguneko gaia azalduko dugu, hau da, lanaren mundua eta zure familiako lanbideak.



B Parte-hartzaileei eskatuko diete beren familiako lanbideak marraztu ditzaten; emakume batek gauzatutako lanbide bat eta gizon batek gauzatutako beste lanbide bat aukeratuko dituzte (beren aitona-amonen, gurasoen, izeko-osaben edo familia inguruko beste edozein kideren lanbidea izan daiteke).



C Marraztu ondoren, parte-hartzaileei eskatuko diegu aukeratu dituzten lanez hitz egiteko, eta lanaren eta generoaren gaineko hausnarketa orokor bat egitea proposatuko dugu: ba al dago lanik soilik gizonentzat edo emakumeentzat denik? Erabiltzen dugun hizkuntzak lan zehatz bat nork egin behar duen iradokitzen al digu? Zein dira gehien aipatu diren lanbideak? Genero zehatz batekin lotzen al dira?



Eztabaidarekin jarraituz, hitzik gabeko honako liburu hau (edo horrekin lotutako bideoa) erakutsiko dugu: *Et pourquoi pas toi?*², Madalena Matoso-k idatzia 2011n; gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak sustatzen ditu. Liburu horretan, tira mugikorren mekanismoaren bidez, genero-estereotipo edo banaketa oro desagertzen dela dirudi, ez da hitzik behar azaltzeko, orriak pasa behar dira soilik; esanahia intuiziozkoa eta berehalakoa da. Lanbide oso ezberdinak dituzten gizonak eta emakumeak aurki daitezke: emakume zientzialariak, nekazariak, prestidigitadoreak edo rock musikariak; gizon ume-zaintzaileak, irakasleak edo bere hurrez arduratzen direnak haiek gaixorik daudenean.

→ JARRAIBIDEAK

Honako galdera hauek egin ditzakegu:

- Ba al dago alderik emakumeen eta gizonen lanbideen artean? Zergatik?
- Gizonen edo emakumeen mugatzen zaien lanbiderik ba al dago?
- Zure ustez, genero-diferentzien ondorioz, lanbide batzuk aukeratzea aurreikus daiteke?



² Ikus aurkezpena hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=6uPdrfWhWf4>

2. jarduera Edertasun-eredua ★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 25
Segimendua: 15



Materialak

- ☐ Aldizkariak
- ☐ Kartela
- ☐ Folioak
- ☐ Koloretako arkatzak



Helburu-
adina
9-12 urte

→ TESTUINGURUA

Jardueraren helburua **da hausnarketa sustatzea norbere kulturaren edertasun-ideal zabalduen gainean**, eta ezagutzea emakumeen eta gizonen edertasun-estereotipoak.

→ GIDOIA



Iragarkiak eta aldizkariak jarriko ditugu ikasgelaren erdian.



Parte-hartzaileei eskatuko diegu beren ustez gizonaren eta emakumearen edertasuna adierazten duen argazki bat aukera dezatela (argazki-kopurua aldatu egin daiteke, denbora erabilgarriaren arabera). Garrantzitsua da ahalik eta adierazpenik gehien ematea, zenbait produkturen iragarkiak aukeratzea (ibilgailuak, arropak, sukaldeko tresnak, jolasak) eta mezu kulturalen hartzailea aldatzea (helduak, gaztea jendea, haurrak). Ondorioz, parte-hartzaileek irudiak deskribatuko dituzte eta horien ezaugarri nagusiak markatuko ditugu.



C Ondoren, eztabaida hasiko da: emakumeen eta gizonen edertasun-idealak berdinak edo ezberdinak al dira? Zer ezaugarri izan beharko lituzke gizon baten edo emakume baten gorputzak ederra dela onartzeko? Une horretan, helburua da hausnarketa bultzatzea edertasun maskulinoaren eta femeninoaren adierazpen orokor bien arteko aldean gainean (gizonen edertasuna gorputz gihartsu eta sendo batekin lotzen da; eta emakumeen edertasuna gorputz argalarekin, bular handiekin eta abarrekin lotzen da). Eztabaida amaitzen denean, hausnarketa bultzatu dezakegu edertasunaren idealen gainean bizitza errealekin loturik: Ezagutzen duzun benetako jendeak edertasun-kanon hori betetzen al du? Iragarkian babestutako produktua erosiz gero, iragarkietako modeloen modukoa bilakatuko al zara?



D Pentsatu zuretzat oso ederra den pertsona batez: zein dira bere ezaugarriak? Parte-hartzaileei galdetuz gero ederra "den" norbait marraztu dezatela, "itxura" ederra duen norbait marraztu ordez, lagunduko zaie konturatzen pertsona lodiak ederrak direla, pertsona zaharrak ederrak direla, desgaitasuna duten pertsonak ederrak direla eta abar. Parte-hartzaileei eskatuko diegu ederra iruditzen zaien lagun bat (edozein adinetako gizon edo emakume bat) edo familiako kide bat marraztu dezatela.



E Horma-irudi bat sortuko da marrazki horiekin, eta horrela taldearen edertasun-ideala islatuko da. Amaieran, parte-hartzaileekin jardueraren gainean hitz egingo dugu.

→ JARRAIBIDEAK

Honako galdera hauek egin ditzakegu:

- Ba al dago alderik edertasun femeninoaren eta maskulinoaren artean?
- Pentsatu ezagutzen duzun eta zuretzat oso ederra den emakume batez: zein dira bere ezaugarriak?
- Pentsatu ezagutzen duzun eta zuretzat oso ederra den gizonezko batez: zein dira bere ezaugarriak?
- Ezagutzen dituzun egiazko gizonek eta emakumeek edertasun-kanonak betetzen al dituzte?



3. jarduerak Bestearen oinetakoak ³ ★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 20
Segimendua: 20



Materialak

□ Txartel batzuk galderen gidarekin



Helburu-adina

9-12 urte

→ TESTUINGURUA

OJardueraren helburua **da parte-hartzaileei laguntzea konturatzen emakumeekin eta gizonekin estereotipoen arabera lotzen diren rolak eta jokabideak murriztaileak direla**, eta horiek jendeari beren banakako gaitasunak eta interesak azaltzea eta aprobetxatzea eragozten diotela.

→ GIDOIA



A Neskak eta mutilak banatuko ditugu sexu bereko 3 edo 4 taldetan.



B Honako lan hau esleituko diegu (egoeraren deskribapena, txarteletan ere idatzia, taldeei laguntze aldera):


Imajinatu goizean esnatzen zarela eta konturatzen zarela arrazoi misterioetsuren bategatik neska izatetik mutila izatera edo alderantziz aldatu zaituztetela. Ez dakizu aldaketa horrek zenbat denbora iraungo duen, baina ebidentzia bat da.

- Zer egingo duzu?
- Zer nolako jokabidea izango duzu zure familiarekin eta eskolarekin?
- Lagunak edo kirola aldatuko dituzu?
- Lehen ezin egin zenuen zerbait egiten saiatuko zinateke?
- Aldaketa horrek zertan utziko lizuke gauzak beste modu batez egiten?
- Zer gustatuko litzaizuke zure egoera berrian?

³ Hemen inspiratua: Cviková, *Pink and Blue World. Gender Stereotypes and Their Consequences* (Mundu arrosa eta urdina. Genero-estereotipoak eta haien ondorioak), Jana, 2003.



Parte-hartzaileei utziko diegu gaia taldeetan eztabaidatzen.



Ondoren, parte-hartzaileek bilera egingo dute denek elkarrekin eztabaidatzeko, eta kasu horretan neskei eta mutilei eskatuko diegu pentsa dezatela zer ezaugarri ematen dieten emakumeei eta zer ezaugarri gizonei, eta zer ondorio dakartzan horrek bai emakumeentzat zein gizonentzat ere.

→ JARRAIBIDEAK

Honako galderak hauek egin ditzakegu:



- Zuen bizitzako zer elementu aldatu dira aldaketaren ondoren?
- Zer jokabide eta ezaugarri lotu ohi dira neskekin soilik eta zer jokabide eta ezaugarri mutilekin soilik?
- Gustukoa izan al duzue “beste norbaiten oinetan” sartzea.
- Forma aldatu horretan jarraitu nahiko al zenukete betiko? Zergatik edo zergatik ez?
- Aldaketa egin ondoren, askatasun gehiagorekin edo gutxiagorekin sentitu zarete nola jardun aukeratzeko?
- Neska izatetik mutila izatera pasatzeko trantsizioan eta alderantziz, eskubide gehiago zenituztela sentitu al duzue?

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Generoaren arau sozialak eta estereotipoak

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna: _____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____ / ____ / ____ Iraupena: _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

[illegible]

MODULUEN ZERREDA

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 **Generoaren arau sozialak eta estereotipoak**
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 Genero-indarkeria
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 Talde-kohesioa
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra



Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



AIDOS
ASSOCIAZIONE ITALIANA
DONNE PER LO SVILUPPO



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua